

Errore simple eta konplexuen azterketa hizkuntza-ereduetan oinarritutako euskarazko estilo- eta gramatika-zuzentzaile bati begira / Analysing simple and complex errors for a Basque grammar-style checker based on language models.

**Proposers/Proposatzaileak:** Izaskun Aldezabal

**Contact/Kontaktua:** izaskun.aldezabal@ehu.eus

**Description/Deskribapena:**

Lan honetan euskarazko errore sailkapena eta lanketa egin nahi da, hizkuntza-ereduen bidez zer egitea merezi duen eta zer ez ondorioztatzeko. Horretarako, lehenik eta behin, gai honen inguruan egin diren lanak bilduko dira, alde batetik, errore sailkapenak aztertzeko, bestetik, hizkuntza-ereduekin egin diren saiakerak ezagutzeko eta, azkenik, horietan aztertu ez diren aztergaiak identifikatzeko. Ondoren, horietako bat(z)uk bereziki landuko d(ir)a, hizkuntza-ereduei begira errore errazak eta konplexuak izan daitezkeenak bereiziz, eta horiek lantzeko beharko litzatekeen informazio-kodeketa proposatuz.

**Goals/Helburuak:**

Euskarazko errore sailkapena egitea, hizkuntza-ereduen bidez zer egitea merezi duen eta zer ez ondorioztatzeko. Hori identifikatuta, hizkuntza-ereduentzat errazagoak edo konplexuagoak direnak bereizi, eta horiek lantzeko beharko litzatekeen informazio-kodeketa proposatu.

**Requirements/Betebeharrak:**

- Euskararen ezagutza sakona.
- Gramatika- eta estilo-erroreen arloan murgildu izana.
- Erroreekin lotutako euskarazko baliabideen ezagutza sakona: gramatikak, corpusak, balizko iturriak
- Hizkuntza-ereduak erabiltzen eta ebaluatzen jakitea.

**Framework/Esparrua:**

Erroreen identifikazio eta tratamendu automatikoa.

**Tasks and plan/Atazak eta plana:**

- Artearen egoera euskararen kasuan.
- Erroreen sailkapena eta adibide-bildumak egitea.
- Hizkuntza-ereduentzat baliagarri izango den formatuan jartzea
- Errore mota jakin bat(z)uk lantzea eta euskararako aproposentzat jotzen diren hizkuntza-ereduak ebaluatzea
- Etorkizunerako bideak markatzea

**References/Erreferentziak:**

Ornoz, Maite (2008). Euskarazko errore sintaktikoak detektatzeko eta zuzentzeko baliabideen garapena: datak, postposizio-lokuzioak eta komuntadura. Lengoia eta Sistema Informatikoak Saila. Donostia. Euskarazko Tesien II. Koldo Mitxelena saria Ikasketa Teknikoen jakintza-arloan.

Uria, Larraitz (2009). Euskarazko errore eta desbideratzeen analisirako lan-ingurunea. Determinatzaile-erroreen azterketa eta prozesamendua. Euskal Filologia Saila (UPV/EHU). EHUko Gipuzkoako Campuseko Joxe Mari Korta zentroan aurkeztua, 2009ko abenduaren 9an.

Méndez, Ariane (2022). Error Generation for a Grammar Checker in Basque: Correction and Detection. HAPLAP masterra. Informatika Fakultatea, UPV/EHU.

Zulaika, Muitze (2023). Euskarazko errore gramatikalak zuzentzen entrenamendu-adibide erreal eta sintetikoak uztartuz. HAPLAP masterra. Informatika Fakultatea, UPV/EHU.

Beloki et al, 2020. Grammatical error correction for Basque through a seq2seq neural architecture and synthetic examples. Procesamiento del Lenguaje natural, 65: 13-20.